


ZEBARRI

2010eko
negua

etxebarriko euskaltegiho ikasleek egina

MUNDU OSO BAT
EUSKALTEGIAN



eta gainera...

TAO Etxebarrin
www.etxebarrikoeuskaltegia.com web gunea
Etxebarriko tabernak
...eta abar



ULIBARRI
EUSKALTEGIA



AURKIBIDEA

ZEBARRI honetan

Mundu oso bat euskaltegi barruan	3-4
TAO zerbitzuari azterketa	5-6
www.etxebarrikoeuskaltegia.com	7-8
Etxebarrin tabernaz taberna (I)	9-10
Bidegorrian astalka!	11-12
Bizkaieraren txokoa	13-14
Euskaltzaindia	15
Etxebarritik Euskal Herrira	16-17
Kultur gomendioak	18-19
Internet ataria	20
Horoskopoa	21-22-23
Umeen Txokoa	24
Txistek, asmakizunak eta esaera zaharrak	25-26
Denborapasak	27



Zebarri aldizkaria honako erakundeei esker gauzatu da:



YLIBARRI
EUSKALTEGIA



BFA
DFB
Bizkaiko Foru
Alkandia
Diputación
Foral de Bizkaia
Kultura
Sala
Departamento
de Cultura



MUNDU OSO BAT EUSKALTEGIAN

Mundu oso bat sar daiteke gure Euskaltegi txikian, mundu osoari dago zabalik euskara.

Hona hemen euskara ikasten ari diren lau ikasleren iritzia. Lehenengoa paraguaiarra dugu, bigarrena mexikarra, hirugarrena errumaniarra eta laugarrena kolonbiarra. Solasaldi paregabea izan dugu klasean haiekin eta zuei helarazi nahi dizuegu. Lau lagun hauen antzera ia zuek ere euskara ikastera animatzen zareten!!

ZEBARRI: Nor zara?

- Ni Siria naiz.
- Ni Fabiola naiz.
- Ni Andrea naiz.
- Ni Paula Andrea naiz.

Nongoa zara?

- S:** Ni Paraguaykoa naiz.
- F:** Ni Mexikokoa naiz.
- A:** Ni Errumaniakoa naiz.
- P.A:** Ni Kolonbiakoa naiz.

Non bizi zara?

- S:** Ni Etxebarrin bizi naiz.
- F:** Ni Etxebarrin bizi naiz. Nire senarra Etxebarrikoa da.
- A:** Orain Etxebarrin bizi naiz.
- P.A:** Ni Etxebarrin bizi naiz.

Zergatik hasi zara euskara ikasten?

S: Alde batetik, lana erraztasunez aurkitu ahal izateko, hainbat lanetan euskara beharrezkoa baita. Eta bestetik, nire alabari laguntzeko; eta nire beste bi umeak ekartzen ditudanean beraiekin hitz egiteko eta etxerako lanak egiten laguntzeko.



F: Lehenengo eta behin, hemengo kultura eta hizkuntza ezagutu eta ikasi nahi nituelako. Hona etorri naizenez bizitzera, hori zen nire lehenengo nahia. Bigarrenik, lan kontuagatik, zenbait lanetan euskara eskatzen dutelako.

A: Nire inguruan daudenei ulertzeko ikasi nahi dut. Medikua naizenez, nire gaixoeekin harreman hobe izateko eta lankideekin hitz egiteko ikasi nahi dut. Era berean, titulu ofizialen bat ateratzen badut, hobeto!!

P.A: Nire semeari etxerako lanekin laguntzeko eta berarekin euskaraz hitz egiteko.

Gustuko duzu?

S: Bai, ni bizi naizen tokian errotzen saiatu behar dut eta gainera ikasi nahi dut.

F: Bai, oso gustuko dut eta oso gustura etortzen naiz euskaltegira oso giro polita dagoelako.

A: Oso oso gustuko dut hizkuntza berriak ikastea.

P.A: Bai, oso. Oso gustatzen zait.

Zaila dela iruditzen zaizu?

S: Bai, pixka bat bai. Baina klasean hitz egiten saiatzen gara eta asko ikasten ari naizela uste dut...

F: Bai, baina kurtso hasieratik asko ikasi dudala uste dut eta gustura nabil...

A: Gustuko dut baina oso zaila iruditzen zait.

P.A: Ez, nik uste dut orduak sartu behar direla. Etxean ikasi, birpasatu, irakurri...

OHARRAK:

S: Paraguayn dauden nire senideei hitz egiten diet. Adibidez, nire umeei koloreekin zerrenda bidali diet eta ikasi behar dutela esan diet, horrela etortzen direnerako zerbait jakingo dute!

F: Mexikon dagoen nire amarekin telefonoz hitz egiten dudanean, "agur" esaten diot eta berak niri ere!!kar,kar,kar.

A: Orain, ospitalean nagoenean, naturaltasunez erantzuten dut bai edo ez, eta jendeak hori ikusita jarraitzen du hitz egiten, eta nik hainbeste ez dut ulertzen oraindik.

P.A: Taberna batean lan egiten dut eta bezeroekin praktikatzen dut. Zenbakiak bezeroekin praktikatzen ikasi nituen!! Askok gustatzen zait euskarak haiekin sortzen didan harremana.





TAO ZERBITZUARI AZTERKETA

Elkarrizketa honek bidea emango digu egunero herriko kaleetan gora eta behera uniformea jantzita eta aparkaturik dauden autoei begitazoa botatzen ikusten ditugun langileak, eta, bide batez, lana bera hobeto ezagut ditzagun.

Edozein egunetan, edozein ordutan, edozein lekutan....

ZEBARRI: Egun on, zenbat denbora daramazu lan honetan?

TAOko langilea: *Urtebete, baina lankideak zerbitzua martxan jarri zenetik, hau da, pare bat urte.*

Zenbat lankide zarete? Kopuru nahikoa al da?

4 gara guztira, eta, bai, nahikoa da, herri txikia dugu eta.

Zer prestakuntza izan duzu lan honetan aritzeko?

Udal ordenantzak ikasi, eta jendearekiko hartu-emanetarako zenbait aholku. Horrez gain, desfibriladorea erabiltzeko ikastaroa jaso dugu. Horrela, kalean edozein larrialdiren aurrean tresna hau erabiltzen jakingo dugu.

Nola antolatzen zarete zuen artean? Baduzue ibilbide finkorik?

3 ibilbide ditugu eta astero langile batek bat osatzen du. Hurrengo astean rotazioa egiten da aspergarria izan ez dadin.

Aspergarria deritzozu hain herri txikian lan egiteari?

Pixka bat. Izan ere, ordu asko ematen ditugu bakarrik kalean eta ,azkenean, aurpegiak, autoak, dendak, dena egiten da ezaguna.

Nola bizi izan duzu TAO-ren ezarpena?


Oso onuragarria izan da denontzat. Izan ere, TAO-ri esker, aparkaleku gehiago dugu.

Kexa asko jasotzen duzue?

Orain, gero eta gutxiago. Hasieran, ordea, ohitura falta dela eta, jende askoren galderak eta kexak entzun behar izan genituen.

Zer proposatzen duzu zure lan-baldintzak hobetzeko?

Gauza bakarra: praka aproposak. Izan ere, orain ditugunek ez dute ezertarako balio euria egiten duen egunetan.



Zenbat isun jartzen duzue egunean zehar, gutxi gorabehera?

Egunaren arabera. Athletic-ek etxean jokatzen duenean, esate baterako, gehiago. Hotza egiten duenean, aldiz, gutxiago. Baina kopuru bat zehaztearren 5 edo 6 izan daitezke.

Zein da isun gehien jartzen duzuen ordu tartea?

Arratsaldeko 15:00etatik 16:00etara. Bazkaltzeko ordua denez gero, jendea despistatu eta ahaztu egiten da. Eta ordu honetan tabernen ingurura begistazoa botatzea baino ez dago horretaz jabetzeko.

Zein dira tarifak? Garestiak deritzezu?

Bi gune bereizi daitezke. Gune urdinean 4 ordu gehienez aparka dezakezu 5 euroren truke. Noski, tarifa hau zatigarria da, betiere, denboraren arabera. Eta berdean 3 euroren truke egun osoa izan dezakezu kotxea bertan. Hau ikusita, garbi ikusten da ez dela garestia, Bilboren aldean, behintzat.

Zer gertatzen da kotxe bat denbora luzez ticketik gabe aurkitzen duzuean?

Prozesua honakoa da: autoa ikusi eta 15 minutura ticketik ez badauka, isuna ezartzen zaio. Hurrengo egunean leku berean segitzen badu, beste isun bat. Eta hala eta guztiz ere, bertan segitzen badu, Udaltzaingoari ohartarazten zaio. Kotxea lapurtua izanez gero, isun guztiak kendu egiten zaiakio.

Noizko TAO-a San Antonion?




Momentuz horren berririk ez dago, gainera, ez dut uste beharrezkoa denik.

Zein izan da kalean ikusi dituzun gauza guztietatik bitxi edo bereziena?

Behin, labain-atedun autoa begiztatu nuen, atea zabalik zuela. Atea itxi ezinik, Udaltzaingoak autoaren jabeari deitu eta jabea bera jakinaren ginean egon arren, orduak pasatu ziren azaldu arte. Nolako gibela!

Bukatzeko, zure lanpostuak ligatzeko aukera ematen al dizu?

Bai, uniformeak edo asko laguntzen du eta askotan entzun behar izan ditut era askotako loreak, kar, kar, kar.





Etxebarriko Euskaltegiak badu web gunea, eta bere izen bera darama gainera! Gogoratzeko ezin hobeto!

Gaur egun, informazioa modu digitalean eta interneten ia ezinbesteko bihurtu da eta premia hori asetzeko, Euskaltegiak bere gunea eraiki du goian agertzen den izenburuko helbidean.

Web guneak zer eskaintzen duen jakiteko bertara sartzea duzu onena, baina agian orain ez zaude ordenagailu batetik hurbil edo nahiago duzu, modu tradizionalan, paperezko albistegi honi eutsi. Bigarren talde honetakoa bazara zorionak, oraintxe ikusiko baituzu zer gordetzen duen Euskaltegiaren guneak.

Ikasleok edozein momentutan beharrezkoa dugun informazioa esku-eskura izatea du helburu nagusi web guneak, erreferentziazko gune bat izatea. Alde batetik, azterketa deialdietako data nagusiak bertan izango ditugu, web gunera sartu eta berehala, azterketan izena emateko epea, emaitzak jakiteko eguna eta modua, ahalik eta informaziorik zehatzenean klik batetik bestera. Horrekin batera Euskaltegiaren inguruan sortzen den edozein albisteren berri ere izango dugu.

Hori guztia aurkituko dugu hasierako orrialdean, baina web guneak atal gehiago ditu: Gure Euskaltegia izenekoan euskaltegiaren inguruko historia pixka bat, Zebarri aldizkariak deskargatzeko moduan eta abar.

Beste atal batean euskara ikasteko Euskaltegiak eskaintzen dituen eskola arrunten ordutegiak eta mailen zerrenda, eta BOGA modalitatearen xehetasun guztietarako atal berezia dago.

Ikastaro mota bakoitzari dagokion tarifa eta euskara ikasteko ikasleok ditugun dirulaguntzen berri ere izango dugu web gune berri horretan. Izan ere, Etxebarriko Udalak zein HABEK berak ematen dituzten dirulaguntzak eskuratzeko prozedurak argibideak argi eta modu errazean jakinarazi behar dira.



Web gunea euskaraz eta gaztelaniaz dago eta denbora joan ahal gero eta informazio gehiago bilduko du. Baina Etxebarriko Euskaltegiko informazioaz gain hainbat web gune interesgarritara heltzeko loturako daude azkenengo atalean, sarean aurki ditzakegun hiztegiekin, ariketekin....

Adi egon, beraz, web gune berri honetan aurkituko dituzun albiste eta informazioei.



www.etxebarrikoeuskaltegia.com



Atal honetan Etxebarriko benetako "kultur etxeak", amodio eta gorrotoaren tenpluak, egun eta gau amaitezinen aterpeak, hau da, tabernak, kafetegiak, pub-ak eta oro har mota guztietako kobazuloak aztertuko ditugu. doakizue, aukeratzeko orduan huts egin ez dezazuen.



LANBROA

Lanbroa taberna San Esteban kalean dago eta leku ezin aproposagoa dugu kafe, kopak eta pintxoak dastatzeko. Izan ere, oso ondo kokaturik dago, supermerkatuaren aurrean eta banketxeen artean. Duda txikiena izanda, pasa zaitez eguerdian eta dasta ezazu tortilla zoragarria. Zerbitzua on-ona da eta lagunaren artean sentituko zara.



KATEA

Egetiaga-Uribarri kalean dagoen dastategia da. Goizean gosaria eskaintzen digu, kafesnea eta opiltsoak. Gainera, beti irribarrea ezpainetan duen Belenek artatuko zaitu. Arratsalde partean, ordea, pintxo sorta polita izango dugu dastagai. Dastategi honetan ohikoa da mahai-jokoetan aritzea, besteak beste, partxisean, okan eta briskan.



BELIFORANOS

Santa Ana kalean kokaturiko taberna-jatetxea da. Oso ezaguna Etxebarrin etxeko janaria emateagatik. Jantokia nahiko handia denez, oso aproposa da ospakizunetarako, besteak beste, enpresa-bazkariak eta bataioak. Horrez gain, era askotako pintxoak dasta daitezke, betiere, kafe goxo-goxoa ondoan duzula.

Herriko jendeak bilgune bezala erabiltzen du maiz taberna hau.



JOAN

Patxi Bengoa plazan kokaturiko taberna dugu honakoa. Normalean gazte jendea biltzen da bertara. Taberna honen ezaugarririk nabarientariko dardomakina da. Makina honen bidez on-line joka dezakezu beste taberna bat edo batzuen kontra. Horrez gain, sofa erosoei esker, atsedena hartu ahalko duzu hatzei eragin ostean.



BIG FRIEND

Egetiaga-Uribarri kalean aurki dezakegu taberna-jatetxe hau. Oso ezaguna da, batez ere, Etxebarriko gazte jendearen artean.

Oso egokia da ospakizunetarako; izan ere, hamburgerak eta plater konbinatu mordoa eskaintzen ditu, prezio onean, gainera.

Urtero futbolin txapelketa egiten da, jende andana mugiarazten duena. Beraz, hurrengo txapelketan parte hartu nahi baduzu, has zaitez praktikatzen tabernan bertan dagoen futbolinean.



BETI BATERA

Amezola kalean dugu taberna bat baino gehiago den gunea hau. Izan ere, kultur-elkartea da.

Giroa oso familiarra da eta koadrila askoren bilgune izan ohi da.

Edozein tabernak eskaintzen dituen zerbitzu guztiez gain, bertan antolatzen diren ekitalde guztien berri zehatza izango duzu, bertara sartuz gero.



BIDE GORRIAN AZTALKA!!



Etxebarri herri handia da, eta horregatik ditu hainbeste gauza: kiroldegia, ludotekak, liburutegiak, metroa, autobusa, trena, Etxebarriko Autobusa eta abar. Baina bizikletaz ibili nahi izanez gero ez dago aukera askorik. Gure ustez Bidegorri baten premia dago.

Baina, zer da Bidegorri bat?


Errepideak oso arriskutsuak dira bizikletaz eta patinetz edo irristailuz ibiltzen diren pertsonentzat. Hori dela-eta, herri batzuetan konponbide bat asmatu zuten: bizikleta eta abarrentzako bide berezi bat, eta gorritz margotzea erabaki zuten, errepide arruntetatik ezberdintzeko eta txirrindularientzako bide propio bezala identifikatzeko.

Oraintxe bertan irristailuz edo bizikletaz ibiltzea gustuko dutenek ez daukate leku askorik Etxebarri beren kirola praktikatzeko. Kiroldegiaren inguruan ibili ohi dira baina nagusiei ez zaie gustatzen eta kexatzen dira (arrazoi osoz, gainera). Zintururiko Begiratokian ere gauza bera gertatzen da: umek ezin dute jolastu futbolearen edota saskibaloian zonaldea bizikletaz beteta dagoelako.

Bidegorri bat edukiko bagenu leku aproposa izango genuke kirol hori egiteko. Gainera, kutsadura gutxiago sortuko genuke eta alde guztietatik kexa gutxiago agertuko lirateke. Etxebarri Bidegorria egongo balitz arrisku gutxiago egongo litzateke eta haiek babestuago egongo lirateke. Modu berean, etxebarritarrak kirola egitera animatuko lirateke.



Gu ez gara soilik kexatuko, ordea. Proposamen bat ere egingo dugu. Guk uste dugu posible dela Etxebarrin Bidegorria egitea. Badakigu dirua behar dela eta Etxebarri oso aldapsua dela, baina oso beharrezkoa dela uste dugu. Guk Bidegorria egiteko ibilbide bat proposatu dugu, Metro geltokitik hasita Kiroldegiraino. Hemendik pasatuko litzateke gure Bidegorria:



- Metro Geltokia
- Santa Ana basiliza
- Trenbide gaineko pasagune urdina
- Bekosolo Parkea
- Anbulategi Zaharra
- Errepide gaineko pasagunea
- Kukuiaga parkea
- Kiroldegia

Eta kiroldegira heldu ondoren, ausartenak agian saiaturiko dira Zintururiko plazaraino heltzen.

**Zu
ANIMATUKO
AL ZARA?**



(7. urratseko guraso taldea)



ZEBARRI ALDIZKARIAREN ALE
HONETAN, BIZKAIERAZ IDATZITAKO
IPUIN PARE BAT DAKARTSUEGUZ.
EA GUSTATZEN JATZUEZAN!

JENTILA ETA KRISTAUA



Behin baten, jentil-baratzean jentil indartsu bat bizi ei zan, beste jentil guztiak menpean eukazana. Bere astia jentil-baratzetik Leizadira eta Leizaditik jentil-baratzera emoten ei eban. Halango baten, kristauen artera joatea bururatu jakon, ea han berari burrukan egiteko gizonik bazan. Joan ei zan Lazkao aldera, eta bidean hamalau urteko mutikoa aurkitu ei eban:

- Zu gizona zara?- galdetu eutsan jentilak.
- Oraindino ez, gaztetxo naz eta- erantzun eban mutikoak.

Lazkaotik behera joiala, gizon zahar bat aurkitu eban:

- Zu gizona zara?- barriro jentilak.
- Urteetan aurrera joanda nago ni. Beasaingo olan aurkituko dozuz gizon-gizonak- erantzun eutsan gizon zaharrak.

Bai, eta jentila Beasaingo olara joan eta han be gizonik ete zan itaundu eban. Kristau errementari batek urten eutsan eta jentilak:

- Nire ukabila bihurritzeko dan gizonik bada, urten dagiala!
- Bai...! Itxaron apur baten!

Eta halan, sutan goritutako txirikinaz suretik heldu jentilari, eta surra moztu ei eutsan.

Jentila garrasika, jentil-baratzera joan zan, eta bere lagunak:

- Zer egin deutsue?
- Arte gaiztoak daukez kristauak!

Eta ordutik jentilak kristauai bildurra hartu ei eutsen.



DOMINISTIKU



Senar-emazte batzuk ez euken seme-alabarik, eta egunero eskatzen eutsen Jaungoikoari.

Egunak joan eta egunak etorri, urteak joan urteak etorri, eta ez eben ezer lortu.

Deabrua agertu jaken egun baten eta esan:

- Zuok eukiko dozuen umea neuretzat izango dala berbea emoten badaustazue, laster emongo dautsuet zuok eske eta eske zagozen ume hori.

Eta besteak, baietz!

Aldiaren buruan, sortu zan umea, eta aita-ama barriak, haren bateoko egunean, jai handi bat egitea erabagi eben.

Horretarako, ahari eder bat ekarri eben etxera, biharamonean hil eta jateko.

Auzoko batek, jaia egiteko ahari ederra etxe haretara eroan ebela jakin, eta gabaz, ixil-ixilik, hara joan zan ha lapurtzeko asmotan.

Etxean sartu eta deabrua aurkitu eban bertan, umearen arimearen eske joanda. Eta deabruak lapurrari:



- Geldi...lan handi bat egiteko gogoia daukat...zuk ez esan inori. Umegorri honek hiru bider usin egingo dau, eta inork "doministiku" esaten ez badautso, umea hil, eta bere arima infernura eroango dot.

Handik laster, umetxo horrek usin egin eban eta ez eutsan inork ezer be esan. Gerotxoago, barriro be usin, eta lapurrak, inork ezer ez ebala esaten ohartzean, pentsau eban beretzat:

- Ume, ume errukarria! Eta deabruak infernura eroan gura zaituala...! Ez horixe, ez!

Eta ahoa zabalduaz, esan eban bere indar guztiakaz: "doministiku! Aharirik ostuko ez badot be!

Deabrua iges, eta goikoak behera etorri ziran, han nor ete ebilen ikusten. Gizon ahari-zalea aurkitu eben han, kikilduta. Eta jazotako guztia harengandik jakin ebenean, gurasoak pozik emon eutsen aharia gizonari.

Eta hortik ei dator, umetxoak usin egitean, "doministiku" esateko ohitura.

(Euskalerriko ipuiñak liburutik hartua/moldatua)





LERROZ ALDATZEAN MARRATXOAK NOLA JARRI

Hizkuntzetan bi irizpide nagusiz baliatzen dira idazleak lerroz aldatzean hitza ezinbestean zatitu behar dutenean eta, hortaz, marratxoa jarri behar dutenean: marratxo hau morfemak kontuan harturik jartzen da edo marratxoa silabak bereiziz jartzen da.

Euskararen kasuan, morfemak hartuko balira kontuan, honela banatuko lirateke hitzak: *zakurra*; *due-la*; *dute-n*; *gizon-ik*; *maitasun-a*, e.a.

Morfemen ordeztu silabak hartzen badira, berriz, honako hau geratzen da: *za-ku-rra*; *du-e-la*; *duten*; *gi-zo-nik*; *mai-ta-su-na*, e.a.

Ikusten den bezala, zein den aukeratzen den irizpidea, ondorioak ere aski desberdinak dira, nahiz batzuetan bat etor daitezkeen bi irizpideak: *ke-a* hitzean, esate baterako.

Morfemak hartuko balira kontuan badirudi arazo handiak sor litezkeela: itxuragabekeriak (*duzue-n*; *de-n-a*); morfemak non hasten diren eta non bukatzen zehaztea ez da gauza erraza (*gizon-e-k*; *g-en-bil-tza-n*; *Andoni-re-kin*) e.a. Gainera, bistan denez euskal idazle eta hiztunek askoz ere garbiago dute silabaren intuizioa morfemarena baino.

Euskaltzaindiak hitzak silabaka zatitzea gomendatzen du.

(Euskaltzaindiak, Bilbon, 1994ko azaroaren 25ean onartua)



Etxebarritik Euskal Herrira



Atal honetan, txango bat gomendatuko dizuegu: familia, ume, bikote, talde, lagunekin... etab. egiteko; azken finean edozein modutan joan ahal zarete!

Guardia, Araban dago. Herri txikia da eta Errioxako muga dago. Logroño hurbil duzue. Herri honen azpian upeltegi asko dago. Alde zaharra ederra da eta Guardia harresiz inguratuta dago.

Udaletxean erloju bitxia dago eta orduak ematen duenean, hantxe bazaude, sorpresa bat ikusiko duzue...

Samaniego alegilari ospetsua izan zen. Haren estatua Guardian dago, Collaon ibilbidean hain zuzen. Samaniegok alegi asko egin zituen, eta guk pentsatu dugu bat aipatzea hemen:

AZERIA ETA MAHATSA

Azeria mahatsa begiratzen ari da. Mahatsa harrapatu nahi du baina saltoka ez da hartzera ailegatzten.

Enborrera igo eta azkazalekin saiatu baina irrist egiten du. Eta ezin du mahatsa harrapatu.

Horregatik esaten du: ez dut mahatsik nahi, berdeak daude eta!



Guardiatik hurbil "La Hoya" arkeologia-indusketak topatuko dituzu. Burdin Aroko aztarnategi bat aurkitu zen 1935ean eta horrek Guardia herria antzinakoa dela frogatzen du.

Bilbotik bi ordutara dago gutxi gora behera. Egunean joateko oso txango polita da. Jatetxe asko dago eta bazkaltzera geratzen bazara janari gozoa dastatuko duzu: patatak errioxar erara, menestra naturala bertoko produktuekin, bildots-txuletak, potxak... eta esan beharrik ez: primerako ardoa!

Animatu eta joan zaitetze Guardiara!



EUSKAL MUSIKA 



ORTZIMUGAK BEGIETAN (KEN 7)

Ken 7 taldea azken urteetan Euskal Herrian kontzertu gehien eskaintzen eta disko gehien saltzen duen taldeetako bat da. 1996. urteko udazkenean jaio zen Gernikan JM Arronategik (Exkixuko baxu-jotzailea) eta Eñaut Elorrietak (Lugarriko abeslaria) bultzatuta. Orduan, Bi eta bat aurrerapen abestia kaleratu zuten urte hartako "Aurtengo GORakada, 1" Gor diskoetxearen bilduma diskoan, KEN 7 izenburupean. Rocka eta power-popa lantzen dituzte, eta testuetan taldeak inguruarekiko duen konpromiso handia erakusten du, eguneroko kezka, egoera eta sentimenduak deskribatuta. 2010eko amaieran disko hau aurkeztu dute.



TXINAURRIAK (ZENBAITEN ARTEAN)

Mikel Laboaren heriotzatik bi urte pasatu direnean Bidehuts zigiluak bere omenaldia egin nahi izan dio Donostiako artistari. Horretarako, Bidehuts-eko ohiko taldeez gain, beste zenbait agertzen dira disko bikoitz honetan, 19 talde guztira. Bakoitzak Laboaren kanta bat hartu du eta bere erara moldatu ondoren 2010eko grabatu dute Karlos Osinagaren gidaritzapean, Tolosako Bonberenea gaztetxean. Diskoa biniloan eta Cdan argitaratu dute. Hona hemen parte hartzaileen zerrenda: anari — lisabö — inoren ero ni — hotel — willis drummond — audience — gora japon — gabon caligula — mursego eta eten — zura — berri txarrak — borrokan — atom rhumba — dilistak — akauzazte — amodio — xabier montoia — ama say — ruper ordorika.

EUSKAL LITERATURA 

Kontrarioa (Lander Garro)



Raul Oliveirak xakean eta edaten pasatzen ditu arratsak Oskar adiskidearekin, amodio ezinbestekoetatik ihesian, idazle izateko ametsekin zorabiatuta. Oreretako Pontika auzo bazterrekoan bizi da amarekin, baina aurki lanen bat topatu ezean ostikoz botako du etxetik. Amaitzear da urtea, aro berri bati ekin behar diolako estutasuna bultzaka ari zaio, eta nora gabe horretan patuari izkin egiteak zaila dirudienean, Gabriela ezagutuko du, Jose Zarate margolariaren emaztea: argi izpi batzuen bristada. Behin eta berriro malurretan izan denak bozkarioa ote du esperoan? Bizimodu malapartatu honi lepoa ebaki behar dio. Irribarrea kilikatzen duen istorio petrala da "kontrarioa", makurkeriara bezainbat lerratzen dena umore eta parodiara, beti kontrastez josirik, samurtasunez bezala mingoski. Galtzaile baten ibili piperrak kontaktzen ditu Lander Garroren lehendabiziko nobelak.

EUSKAL ZINEMA 



Izarren argia filmak frankismora eramango gaitu. Victoria alargun errepublikanoa eta bere ahizpa Saturrarango kartzelan sartu dituzte, epaiketarik egin gabe. Bertan, ama errepublikanoei haurrak kenduko dizkiete, familia falangistei emateko. Helburua? Komunismoa bukatzea. Mikel Ruedak zuzendu du filma eta aktoreen artean Barbara Goenaga, Itziar Lazkano, Klara Badiola eta Amaia Lizarralde daude.




INTERNET ATARIA

Aurreko alean ekin genion atari honi. Lehen, Etxebarriko Euskaltegiaren web gune berria erakutsi dizuegu. Oraingoan euskarazko beste zenbait baliabide emango dizuegu, interneten euskara erabili ahal izateko.

Alde batetik Xuxen gunea aurkituko dugu **www.xuxen.com** helbidean. Xuxen euskarazko zuzentzailea da, eta euskaraz idazten dugunean ortografikoki zerbait txarto idatziz gero gorritz azpimarratuko digu. Bi modutara erabil daiteke, ordenagailuan instalatuta edo web gunean testua idatzita. Ezinbestekoa edozein ordenagailutan.



Bestetik, ikasbil ataria dugu. **www.ikasbil.net** helbidean topatuko duzue. Gune horretan euskara ikasteko dokumentu piloak eskuratu ahal izango duzue: bideoak, entzungaiak, testuak, ariketak, azterketa ereduak...





ARIES

(Martxoaren 21etik Apirilaren 20ra)



Amodioa: kontuz lagun horrekin, bere asmoak ez dira onak eta.

Xoxak: Diru kantitate handia helduko zaizu.

Osasuna: Gabonetan kontuz txanpainarekin.

Asteko eguna: Astelehena

TAURUS

(Apirilaren 21etik Maiatzaren 20ra)



Amodioa: Ez badaukazu bikoterik, eros ezazu txakur bat. Ligatzeko aukera ona da.

Xoxak: Laster beherapenak datoz.

Osasuna: Kirola egitea komenigarria da.

Asteko eguna: Osteguna

GEMINI

(Maiatzaren 21etik Ekainaren 20ra)



Amodioa: Utzi dena dagoen bezala, bestela, buruko mina izango duzu.

Xoxak: Langabezian bazaude, lasai. Laster lana aurkituko duzu.

Osasuna: Erretzea kaltegarria da.

Asteko eguna: Igandea.

CANCER

(Ekainaren 21etik Uztailaren 20ra)



Amodioa: Beti gustuko izan duzu agintzea! Oraingoan, utzi besteei.

Xoxak: Orain ere dirurik gabe, aurreztu noiz?

Osasuna: kontuz osasun arazoekin! Mediku azterketa egitea ona izango litzateke.

Asteko eguna: Ostirala



LEO

(Uztailaren 21etik Abuztuaren 20ra.)

Amodioa: Jarrai ezazu horrela. Baina ez ahaztu zure bikotea!

Xoxak: Aurreztu behar duzu bankuarekin arazoak eduki nahi ez badituzu!

Osasuna: Ibiltzeak on egingo dizu.

Asteko eguna: Asteartea.



VIRGO

(Abuztuaren 21etik Irailaren 20ra)

Amodioa: Esan al diozu zenbat maite duzun?

Xoxak: Zu lasai! Etorriko dira garai hobekak!

Osasuna: Edan ezazu ura, ona da eta!

Asteko eguna: Larunbata



LIBRA

(Irailaren 21etik Urriaren 20ra.)

Amodioa: Pertsona berezi bat aurkituko duzu laster.

Xoxak: Aurten loteria jokatu! Eta ez zortea daukazun!

Osasuna: Denetik jaten ez baduzu, zure urdaia gaixotu egingo da.

Asteko eguna: Astelehena



SCORPIUS

(Urriaren 21etik Azaroaren 20ra)

Amodioa: Bikotea badaukazu ezkontzeko eskatuko dizu.

Xoxak: Aurten gerrikoa estutu beharko duzu.

Osasuna: Kirola egin behar duzu, kilo batzuk hartu dituzu eta.

Asteko eguna: Osteguna.





SAGITARIUS

(**Azaroaren 21etik Abenduaren 20ra**)



Amodioa: Bikoterik ez badaukazu, egon lasai! Aurten, aurkituko duzu.

Xoxak: Osaba berezi batek diru asko utziko dizu.

Osasuna: Zaindu zure burua, ez du inork egingo zuegatik eta.

Asteko eguna: Igandea.

CAPRICORNIUS

(**Abenduaren 21etik Urtarrilaren 20ra.**)



Amodioa: Nor da miresle sekretu hori?

Xoxak: Negozio bat eskainiko dizute!

Osasuna: Badakizu erretzea kaltegarria dela? Noiz utzi behar duzu?

Asteko eguna: Asteartea.

AQUARIUS

(**Urtarrilaren 21etik Otsailaren 20ra**)



Amodioa: Herriko jaietara joan beharko duzu bikotea bilatzera.

Xoxak: Zure nagusiari koipea ematen ez badiozu lana galduko duzu.

Osasuna: Jaiak utzi behar dituzu, nagusia egiten ari zara eta!

Asteko eguna: Asteazkena

PISCIS

(**Otsailaren 21etik Martxoaren 20ra**)



Amodioa: Bi lagun bereziren artean ez duzu jakingo nor aukeratu! Ea nor aukeratzen duzun!

Xoxak: Gauzak ondo doazkizu eta aurten autoa aldatu ahal izango duzu.

Osasuna: Kontuz pastelekin! Kolesterolak gora egingo dizu eta.

Asteko eguna: Larunbata.

UMEEN TXOKOA



Gabonak hurbiltzen ari dira eta dagoeneko hasi zara oparietan pentsatzen, seguru. Guk etxean zauden bitartean joku hau prestatu dizugu, bereziki zuretzat.

EZETZ ASMATU:

-Pipa hortzian duela eserita dago. Nor da?.....

-Zer eskatu duzu?. Begiratu zapataren ondean.....

-Txarto portatzen bazara, zer ekarriko dizu?

-Etxea apaintzen duena.....

-“Hator, Hator” edo “Olentzero joan zaigu”, zer dira?.....



Gabon-kantak

Opariak


Gabonetako arbola

Ikatz

Olentzero

Txistek, Asmakizunak, eta Esaera Zaharrak

TXISTEAK



Euskara ikasten:

- Ea Txomin! Nola esaten da "puerta" euskaraz?
- Atea
- oso ongi! Eta "puerto"?
- Ateo

Gizon batek ez zuen komuneko paperik. Denda batera joaten da eta:

- Kaixo, badaukazu komuneko paperik?
- Bai, zein koloretakoa nahi duzu? Gorria, arrosa ala urdina?
- Emaidazu txuria, nik ipiniko diot kolorea eta.

Jaimito bere amonarekin kaletik doa. Jaimitok lurrean txikle bat ikusten du eta hartu egin nahi du.


-Jaimito, ez hartu gauzak lurretik! Esaten dio amonak.

Gero amona lurrera erortzen da eta esaten dio jaimitori:

-Jaimito lagundu!

Eta jaimitok erantzuten dio:

-Ez amona, lurreko gauzak ez dira hartzen.





ASMAK IZUNAK

Puntan punta bi
popan zulo bi
zer ote da?

Saguaren neurrikoa
eta etxea zaintzen
lehoia bezalakoa

Nahiko estua
eta luzea
barnean sua
kanpoan kea

Zein abere da
buruan zerra daramana?

Erantzunak:

giltza artaziak
tximinia oilarra

ESAERA ZAHARRAK

Hona hemen esaera zahar batzuk
eta guk emandako esanahiak!



A ZER PAREA, KARAKOLA ETA BAREA

Bi pertsona berdinak direnean

KANPOAN USO, ETXEAN OTSO

Etzetik kanpo denok onak gara

ABENDUKO EGUNA, ARGITU ORDUKO ILUNA

Neguan, egunak laburrak dira

URRUTIKO INTXAURRAK HAMALAU, GERTURATU ETA LAU

Gauzak ez dira ematen duten bezala

EZ GEHIEGI HITZ EGIN, NAHI EZ BADA HUTS EGIN

“Ahoa itxita dagoenean, euliak ez dira sartzen”

SANTA LUZI, GAUA MOZTU ETA EGUNA HAZI

Abenduaren ondoren egunak luzeagoak dira eta gauak laburragoak



Abestia

Idatzi falta diren hitzak gabonetako abesti honetan:

Hator, hator mutil.....
.....ximelak jatera,
Gabon gaua ospatutzeko
aitaren eta.....ondoan.
Ikusiko duk.....barrezka
amaren.....ta atseginez.


....., mutil, aurreko danbolin horri.
Gaztainak.....artean,
gaztainak erre artean,
txipli txapla,.....!

Gabon.....pozik igaro daigun.



Hizki-zopa

Aurkitu hizki-zopa honetan ikasgela bati lotutako hamar elementu:





**etxebarriko
euskaltegia**
zure neurrira
a tú medida

Maila guztiak

EGA

Hizkuntza eskakizunak

Guraso taldeak

Erretiratuak

BOGA

Ordenagailu bidezko autoikaskuntza

eta

Udalaren dirulaguntzak

Todos los niveles

EGA

Perfiles lingüísticos

Grupos de padres y madres

Jubilados/as

BOGA

Autoaprendizaje por ordenador

y

Con subvenciones del Ayuntamiento



**Etxebarriko
EUSKALTEGIA**

Bekosolo parkea z/g

Etxe horia / Casa Amarilla

Tel/Fax 94 426 28 02

etxebarri@euskalnet.net



YLIBARRI
EUSKALTEGIA

Tel. 94 416 24 72